

27-01-2016; 18:30	Udaletxea
EQUIPAMIENTOS	EKIPAMENDUAK
<p>Parte hartzaileak / Participantes:</p> <p>Javier Martínez, Markel Bollar (Erredaktore Taldea / Equipo redactor).</p> <p>8 pertsona / 8 personas.</p>	
Auzokoak / Vecinos (bai/ez)	Bai / Sí
<p>Alkateak sarrera txiki bat egiten du eta erredaktore taldeak zenbait datu azaltzen ditu gaiari buruz eta eztabaida hasten da.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Osasun zerbitzua: medikua astean bitan etortzen da, eta pediatriarik ez dago ez erizainik (Markinara joan behar da). Ondo egongo litzateke hemen izatea. Behar bada erizainen gela bat beharko litzateke. - Zerbitzuetarako Markinara joan beharra badago, garraio publikoen maiztasuna eta agian, geltokiak ere (lantegi aurrean), gehitu egin beharko litzateke. - Pilotalekuari ere buelta bat eman beharko litzaioke, hobeto aprobetxatzeko espazioa. - Partaide batek dio probalekua dela arazoa eta agian esparru hori da aprobetxatu ahal dena eta probalekua beste toki batera atera. - Beste pertsona batek dio beste toki baten baino hobeto dela aprobetxatzea eta bere azalera estali bere gaina erabiltzeko eta probak direnean libratu. Beste leku batzuetan egin da (Abadino, Mallabia, Azkoitia...). - Jarduerak egiteko (yoga, zumba, manualitateak...) leku berezi bat beharko litzateke. Agian Otsolo eraikinean egin daiteke (beste pertsona batek uste du han metro gutxi daudela). Interesantea, ahal izan ezker, denak leku bateratuan egotea izango litzateke. - Aukera denak aztertu beharko lirateke, zeren eskola libratzen denean, epe ertainera, metro asko geratuko dira libre beste erabilera batzuk emateko. - Eskolari bultzada eman behar zaio, lehentasuna. Horrek ekarriko luke eragin bat ere gainerakoak (polikiroldegia, liburutegia, etab.) egiteko. - Aurreikusitako beharko litzateke erabileren malgutasun bat egiten diren ekipamenduetan, etorkizunean 	<p>El alcalde hace una pequeña introducción y el equipo redactor expone una serie de datos sobre la cuestión y comienza el debate.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Servicio de salud: el médico viene dos veces a la semana y no hay pediatra ni enfermería (hay que ir a Markina). Estaría bien que hubiera aquí. Quizá habría que tener una sala para enfermería. - Si para servicios hay que ir a Markina, debería aumentarse la frecuencia del transporte público y quizá también las paradas (delante de las fábricas). - Habrá que dar una vuelta también al frontón, para aprovechar mejor el espacio. - Un participante dice que el probadero es el problema y que quizá ese es el espacio que se puede aprovechar y llevar el probadero a otro sitio. - Otra persona dice que mejor que en otro sitio es aprovecharlo y tapar su superficie para aprovechar encima y cuando se hacen pruebas librarlo. En otros sitios se ha hecho (Abadino, Mallabia, Azkoitia...). - Para hacer actividades (yoga, zumba, manualidades...) se necesitarían espacios a propósito. Quizá se podría hacer en el edificio Otsolo (otra persona cree que allí hay pocos metros). Lo interesante, de poder, es que todos estuvieran en un único sitio. - Se deberían estudiar todas las propuestas, porque cuando se libre la escuela, a medio plazo, van a quedar muchos metros libres para otros usos. - Hay que dar un empujón, prioridad, a la escuela. Ello generaría un efecto también para hacer los otros (polideportivo, biblioteca, etc.). - Habría que prever una flexibilidad de usos en los equipamientos que se hagan, para que en el futuro

<p>beste erabilera batzuetarako balio izateko.</p> <ul style="list-style-type: none">- Uste da erabilera anitzetarako ekipamendu bat epe motzera planteatu beharko litzatekeela.- Hilerriaren gaia komentatzen da. Uste da elizarena dela, eta udalak obrak egiten ditu, eta elizak mantendu. Argitu beharko litzateke bere egoera. Abadetxearen kasuan ere bai.- Ateratzen da Kamino zerrategiaren kasua, zer egin pabiloi horrekin. Partaide batek proposatzen du hezkuntza erabilera bat (lanbide heziketako eskola-lantegi hantzekoa), gazteak ofizio kreatibo batetan prestatzeko. Uste du hori Etxebarri erakargarri egiteko era bat izan daitekeela. Beste proposamen bat da probalekua bertara eramatera, eta bide batez, udal biltegi bezala erabiltzea.	<p>valieran para otros usos también.</p> <ul style="list-style-type: none">- Se estima que a corto plazo habría que plantear un equipamiento multiusos.- Se comenta el tema del cementerio. Se cree que es de la iglesia y que el ayuntamiento hace las obras y la iglesia lo mantiene. Habría que aclarar su situación. También en el caso del Abadetxe.- Surge el caso de la serrería Kamino, qué hacer con ese pabellón. Un participante propone un uso educativo (parecido a una escuela-taller de formación profesional), para formar a jóvenes en un oficio creativo. Cree que eso podría ser una forma de hacer atractivo a Etxebarria. Otra propuesta es llevar el probadero allí, y de paso, emplearlo como almacén municipal.
---	---